

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

40/2022 Mozioa, apirilaren 27koa, zaugarritasun handiagoko egoeran dauden pertsona guztiei zuzendutako politikak eta babes sozialeko mekanismoak babesteari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko apirilaren 27an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

40/2022 Mozioa, apirilaren 27koa, zaugarritasun handiagoko egoeran dauden pertsona guztiei zuzendutako politikak eta babes sozialeko mekanismoak babesteari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek defendatu egiten dituzte eta haien babesa azaltzen diete babes sozialeko politikei eta Arabako Lurralde Historikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan modu aitzindarian ezarri ditugun tresnei.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiak eta gainerako erakunde eskudunek ezarritako neurriak babesten dituzte Ukrainako inbasioaren ondorio ekonomikoei erantzuna emateko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta gainerako erakunde eskudunei zera eskatzen diete: hainbat egoeratan eta hainbat arrazoiengatik zaugarritasun handiagoko egoera batean dauden pertsona guztiei zuzendutako politikak eta babes sozialeko mekanismoak ebaluatu eta, hala badagokio, hobetu ditzatela.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 27a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA